

ESKOLA PATIOAK AZTERTUZ:

ALDAKETARAKO GARAIA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Almiñana Escuder, Joseba.

ZUZENDARIA: Duque Ingunza, Ainara.

2021

LABURPENA

Gradu amaierako lan honen bitartez, Lehen Hezkuntzako eskola patioak dituzten funtzioak eta atalak azaltzea eta izan duten aldaketeei inguruko analisisa egitea dut helburu. Aztertutako eskola Araia Eskolako patioa izan da. Analisi horretan eskola patioen egituraketari eta bertan ematen diren ekintzei erreparatu dira. Esparru global batetik abiatuz, geroago eskola patio zehatz batera igaroz. Bertan, Covid-19-ko Pandemia aurretik eskola patioetan ematen ziren gertaerak eta aldiz, orainaldian daukagun egoerak honek ze nolako aldaketak sortu dituen eskola patioetan analisatu da. Honekin batera, eskola patioan hainbat hobekuntza desberdinak proposatu dira lan honetan, eskola patio abertasagoa izateko helburuarekin.

Hitz gakoak: eskola patioa; espazioa; futbola; natura; Covid-19

RESUMEN

A través de este trabajo de fin de grado, mi objetivo es explicar las funciones y secciones que tienen los patios escolares de Primaria y hacer un análisis sobre los cambios que han tenido. La escuela estudiada ha sido el patio de Araia Eskola. En este análisis se ha tenido en cuenta la estructuración de los patios escolares y las acciones que se dan en ellos. Partiendo de un marco global, pasando más tarde a un patio escolar concreto. En él se analizan los acontecimientos que se producían en los patios escolares antes de la pandemia de Covid-19 y los cambios que esta situación ha producido en los patios escolares. Junto a esto, en este trabajo se han propuesto diversas mejoras para el patio escolar, con el objetivo de que la escuela sea un patio más enriquecedor.

Palabras clave: patio escolar; espacio; fútbol; naturaleza; Covid-19

ABSTRACT

Through this work at the end of the degree, I aim to explain the functions and parts of the primary school courtyards, and to provide an analysis of the changes they have undergone. The school examined was the courtyard of the Araia School. In this analysis they have observed the structure of the school courts, and the actions which take place therein. Starting from a global framework, then passing to a specific school courtyard. In it, while the Covid-19 pandemic was preceded by events in school courts, and by what changes the present situation has produced in school courts, it has been analysed. Along with this, various improvements have been proposed in this work in the school courtyard with the goal of making the school more accessible.

Key words: school courtyard; space; football; nature; Covid-19

AURKIBIDEA

Sarrera eta justifikazio pertsonala	5
Marko teorikoa	7
1.1 Eskola patioen egitura	7
1.2 Eskola patioen funtzioak	9
1.3 Hezkuntza-garapenerako Gunea	10
1.4 Espazioen berrikuntzaren beharra	11
1.5 Betidanik bideratuta egon den espazioa	13
1.6 Aldaketaren garaia	14
1.7 Pandemia garaia	17
2. Helburuak	17
3. Metodologia	18
3.1 Lagina	18
3.2 Instrumentuak	19
3.3 Prozedimendua	19
4. Emaitzak	20
Saskibaloiko eremua eta honen bazterrak	21
Porlanezko eremua	23
Aterpe barruko espazioa	24
5. Ondorioak	32
Pandemia aurretiko ikasturteko ondorioak	32
Pandemia ikasturteko ondorioak	33
6. Hobekuntza proposamenak	35
Eranskinak	44
Eranskina I; Behaketa fitxak	44
Saskibaloiko zelaiaren eremua eta honen bazterren eremua	44
Porlanezko eremua	45
Aterpe barruko espazioa	46
Eranskina II; Eskola patioeko eremuak	47
Saskibaloiko eremua eta bazterrak	47
Porlanezko eremua	48
Aterpearen gunea	49

Sarrera eta justifikazio pertsonala

Gure mundua etengabe mugitzen ari da eta egunero eskakizun berriak ekartzen dizkigu gure bizitzetara. Hezkuntza munduan diharduten garenok, jakin badakigu egun berri bakoitza abentura ezberdinak plazaratzen dizkigula. Duela urte luze bat, pandemia batek harrapatuta bizi gara. Pandemia horrek gure eguneroko bizitzan zenbatu ezineko egoera amaigabeak aldatzera edo behintzat modifikatzea eragin digu. Pandemia honek ez du berezitasunik egin eta sektore guztiei eragin izan die, baita Hezkuntza Sistemari ere.

Ikasturte zeharo ezberdina planifikatzea eraman gaitu pandemia madarikatu honek. Talde murrizketak, talde burubuilak, gune eta txoko bereizketak, gel hidroalkoholikoa, muxukoak, segurtasun distantzia eta abarreko neurriak hartzera behartu izan gaitu Covid-19 izeneko birus honek. Gela barruko zein kanpoko egiturak eta espazioak modifikatzea gure beharren barruan sartu da, eta aldaketa hori ere gure eskola patioek pairatu izan dute. Behar bada, eskola patioak garrantzi gutxien hartzen duen espazioa da, baina berebiziko garrantzia duen gunea da.

Gune anitza da eta bertan eskolako ikasle guztiak haien artean libreki ibiltzeko eta arakatzeko aukera ematen die. Baina behar bada, eta segurtasunez esan dezaket, pandemiak kalte gehien eragin dion gunea dela hau. Nahiz eta kalte handia eragin, inork ez dio behar bezala erreparatu. Eskola patioek ikasturte berezi honetan, zeinetan baloiak patioetatik ezabatu egin diren, ez diete ikasleei behar beste estimulu eskaintzen. Eskaintza triste hori, eskola patio tradizionalen, hau da, porlanezko laukizuzenak diren hauen erru da. Eskola patio gehienak duela 30 urte zeuden berdinak dira, eta hauek zaharkituta gelditu direla aitortu dezaket. Beraz, aldaketarako garaia iritsi dela uste dut. Alde batetik pandemia honek agerian utzi duelako eskola patioen berrikuntza beharrezkoa dela eta aldi berean, eskola patioek duten garrantzia aitortzeko aldaketa beharrezkoa dela defendatzen dut.

Nire lana aurrera eramateko orduan, aurten izandako praktiketarik abiatu naiz. Pandemia aurretik eta pandemiako ikasturte honetan ikastola berdinean egoteko aukera izan dut, alegia, Araiako Herri Eskolan. Honek aukera eman dit, eskola patioen inguruko analisia egiteko. Analisi hau, duela bi urteko eskola patioen eta aurtengo ikasturte honetako artean izango da. Begi bistakoa da, bi urte hauetan aldaketa nabariak eman direla eta horiei

erreparatzeko beharra ikusi dut. Behar horretatik atera da nire lanaren produktu finala; eskola patio honen aldaketa garaia.

Lan honetan, marko teoriko bat jorratu behar izan da. Horretarako hainbat erreferentzia hartzea izan dira beharrezkoa. Marko teoriko horren bitartez, eskola patioen inguruko ikuspegi teorikoa jorratzea lortu da. Behin marko teorikoa plazaratuta, lan honen bitartez lortu nahi izan diren helburuak eskaintzen dira. Jarraian, aipatutako helburuak lortzeko aurrera eraman beharreko metodologia aurkitzen da. Bertan lanean erabilitako lagina, instrumentuak eta prozedura azaltzen dira. Horietaz baliatuta, emaitza batzuk ateratzeko aukera izan da eta horien azalpena jasotzen da ere. Emaitza horiek ondorio batzuk ateratzeko aukera eman dute eta marko teorikoan azaldutakoarekin lotura zuzena dutela aitortu dezaket. Bukatzeko, hobekuntza proposamenak luzatuko dira lan honen bitartez.

1. Marko teorikoa

Eskola patioetaz entzun edo hitz egiten dugunean, gure burura iristen diren lehenengo irudiak ikasleak korrika, saltoka, oihuka eta abarreko akzioak izaten dira. Aldiz, jendeari honen inguruko definizioa eskatu izan diodanean, honelako erantzunak jaso izan ditut: “Eskola egunean zehar ikasleek gelako errutina apurtzeko duten espazioa eta denbora da”. “Zure gelakideak ez diren ikasleekin elkarrekintza izateko denbora eta lekua, “Mutilak futbolean aritzeko lekua da, aldiz neskek haiek usten dieten espazioan jolasteko eremua da”.

Ikusi eta irakurri dezakezuen moduan galdetua izan den pertsona bakoitzak definizio edo kontzeptu ezberdin bat dauka bere buruan. Honen arrazoa, bakoitzak bere Lehen Hezkuntzako etapan izandako esperientzia pertsonaletik hazia izan daiteke. Baina hau ahal da, eskolako patioen inguruko benetazko definizioa eta helburua?

1.1 Eskola patioen egitura

Eskola patioen inguruan daukagun irudia nahiko berdintsua da guztiontzat. Burura etortzen zaigun lehenengo argazkia, porlanezko zorua duen lurrazal laukizuzena eta bere erdialdean futboleko zelaia duena da. Irudi hau, eskola patio tradizionalekin du lotura zuzena. Hik Hasi (2018) aldizkariaren arabera eskola patioaren irudia hurrengoa izango litzateke: Asfaltoa eta hormigoia luze-zabal osoan, futbol-zelaia erdi-erdian, eta kasurik onenean, saskibaloiko kantzaren bat bazterren batean aurkitzen den espazioa. Alba González, Verónica Guiz eta Anna Carrerasesek (2016) esaten duten bezala, oraindik ere patio gehienetan kirol batzuk praktikatzen laguntzen dute eta askotan pilota jokoan zentratuta daude, futbola ohiko protagonista izanik.

Aldi berean, egitura tradizional hau duten eskola patioek hainbat jarrera hartzera bideratzen diete ikasleei (González, et al., 2016). Alde batetik futbolaren protagonismoa eta monopolioa sorrarazten du eta beste alde batetik, espazio honek desberdintasun sexuala sorraraztea izango litzateke. Gai hauek aurrerago aboradatuko ditut, lehenago eskola patioak zer diren edo behintzat zer izan beharko diren azaldu nahi dut.

Eskola patioek argi eta garbi uzten dute, ikasleentzako beste hezkuntza eta heziketarako toki edo gune bat direla. Azken batean, eskola patioek asteko ordutegiko bi ordu eta erdi hartzen dute, egun bakoitzeko 30-40 minutu izanik. Ikusi dezakegun moduan, presentzia handia dute egunero eta hauek ezin dira soilik alderdi ludikoari eskaini. Eskaini beharreko denbora eta konpromezua eskatzen du eskola patio batek. Ikastetxetako kanpo espazioak ikasleen gaur egungo beharretara egokitzeko apostua egin behar da (Amenabar et al., 2021). Aldaketa hori emateko aukera asko daudela defendatzen du, baina aldaketa guzti horiek komunean zerbait dutela defendatzen du: hezkuntza komunitatea osatzen duten eragile guztiek aldaketa honen partaide direla. Esan bezala, partaide guztien konpromezua behar-beharrezkoa da, azken finean guztion apostua da eta denon artean helburuak betetzeko bidea hartu behar da.

Eskola patioen egituraketa tradizionalaren eta espazioaren gaiarekin jarraitzeko, Hik Hasi (2018) aldizkariak esaten duen moduan, eskola patioek gure ikasleei espazio publikoa erabiltzen eta harreman sozialak garatzen irakasten die. Baina hau errealitatean horrelakoa da? Espazioa publikoa dela esan genezake, baina espazioan bi eragilek pisu handia dutela esan dezakegu. Alde batetik eskola patioen egituraketa eta beste alde batetik patio guztiak kolonizatzen dituen kirolak; futbola.

Esan bezala, patioen egituraketak asko lagundu dezake eremu inklusibo bat izateko. Baina esan bezala, patio gehienak oraindik ere egitura tradizional batean jarraitzen dute murgilduta. Eskola patio gehienak porlanezko laukizuzenak dira, zeintzuk haien erdialdean futboleko kantxa dutenak. Hauetan ez da itzalik egoten, ez da gune berderik egoten eta askotan ez daude esertzeko gunerik (Hik Hasi, 2018).

Egituraketaren arira, Anna Torralboren (2017) hitzak ekarri nahi ditut, zeintzuk patioa zer den eta honek berarekin dakartzan pasarteak jorratzen dituenak.

“Suenan el timbre o la música para salir al patio. Las aulas se abren, una tras otra, y de ellas salen regueros de niños con una sonrisa en la cara y un bocadillo en la mano. Sus pasos son rápidos, tienen prisa, porque tan solo disponen de treinta minutos para jugar y ellos desearían estar horas. De golpe el patio se llena de niños y niñas de distintas estaturas,

ocupan espacios distintos, algunos en grupos, otros caminan solos o se quedan quietos en un rincón sin saber a qué o con quién jugar. En tan solo unos minutos el patio se ha convertido en un lugar caótico a simple vista, la organización del juego parece imposible para cualquiera que mire desde fuera, se juegan tres partidos distintos en un mismo espacio: uno de fútbol en vertical y dos de baloncesto en horizontal. A un lado, un grupo pequeño juega a cartas arrinconado en la pared, las pelotas yendo y viniendo muy cerca de ellos.”

1.2 Eskola patioen funtzioak

Jolastokiek bizikidetzarako eta parte-hartze baketsurako espazioa izan beharko lukete ikasleentzat, izaera ludiko nabarmenarekin. Baina errealitateak erakusten digu espazio horiek, askotan, gatazka larrien gune direla eta jokoak aukera txiki batera mugatzen direla (Valera, 2015). Horiek abegikorrak direnean, errazagoa da konfiantzazko sareak eraikitzea eta aniztasuna onartzea, giro gero eta parte-hartzaileagoak eta inklusiboagoak sustatzea, ikasgelan ez ezik, eskola-arkitekturako beste espazio batzuetan ere (Sapon, 2013).

Espazio bakoitza, esanahien funtzio ezberdinak aldi berean betetzen dituen leku bat da, leku metafisio deituak: errepresentazionalak, interakzionalak eta organizazionalak (Ravelli eta McMurtrie 2016). Esanahi horiek eraikinaren programarekin lotuta daude (kasu honetan, eskola-patioak) eta espazio hori erabiltzen duten hainbat parte-hartzaileak egin ditzakete jarduerak (ikastea, jolastea).

Jolasa funtsezkoa da pertsonen hazkunderako, garapen osasuntsurako eta hezkuntza-tresna indartsua da; bestalde, jolastokiak haurren jolasak garatzeko alde aurretik legeztatutako eta pentsatutako lekuak dira. Jolastokiak, oro har, urriak dira espazioetan, diseinuetan eta ekipamenduetan; askotan, ez dira oso erosoak. Hezkuntzarako eta soziabilitatearen, bizikidetzaren, jakin-minaren, aurkikuntzaren eta sormenaren hazkunderako gune gisa aprobetxatzea hutsaren hurrengo da bere potentzialarekin alderatuta (Marín, 2013).

Kasu gutxitan aipatzen dira jolasteko gaitasuna hobetzea edo jolasa aberastea helburu duten alderdi pedagogikoak. Jolastokia antolatzeko orduan hezkuntza-asmorik ez izateak ondorio desberdinak ditu. Ordutegiak adinaren eta ikasturtearen arabera antolatzea, jolas partekatua eta beste adin batzuekiko harremana ahalbidetuz eta generoaren arabera bereizketa, berez gertatzen bada, desberdintasun sozial, etniko eta kulturalen ondoriozko bereizketa baino handiagoa baita (Marín, 2013).

Identifikatutako asegabetasunek ez dute frustraziorik sortzen haurren artean: haurtzaroa praktikoa da. Haurrek dutena aprobetxatzen dute eta ahalik eta gehien ateratzen saiatzen dira. Egiaztapen hori gorabehera, haurren erdiei baino gehiagori gustatuko litzaieke egiten ez dituzten jarduerak egitea jolastokian (Marín, 2013).

Irakasleek jolastokian egiten dituzten esku-hartzeak gatazka esplizituko egoerekin lotzen dira gehienbat eta gatazka hori kasu oso nabarmenetan soilik interpretatzen da: kontaktu fisikodun borroketan eta istripuetan. Bestalde, jolastokian maisuek betetzen duten eta ikasleek hautematen duten rola, lehenik eta behin, zelatatzea da eta ondoren, "Eseri, hitz egin eta gosaltzea". Hala ere, esku hartzen den egunetan, pilotarik gabeko eguna bezalako jarduerak bultzatuz, horiek dibertsifikatu, aberastu eta sexuen arteko nahasketa handiagoa sortzen da (Marín, 2013).

Jolasek gatazka eta askotan gaizki-ulertuak dakartzate, "Ez gara gehiago elkartuko" bihurtzen diren eztabaidak, irainak edo borroka fisikoak. Liskar horiek konpontzeko modua da, zalantzarik gabe, jolasteak ematen dizkigun hezkuntza-aukera ugarietako bat (Marín, 2013).

1.3 Hezkuntza-garapenerako Gunea

Aintzane Errastik, Alea aldizkarian (2021) esaten duen moduan, esku-hartze txikia nahikoa izan daiteke, umean edo ikasleetan eragin positibo handi bat izateko. Aldaketa hauek, eskola patio inklusiboak lortzeko helburua dute. Azken finean inklusibitatea lortu behar dugu, non ikasle guztiak eroso eta garrantzitsuak sentiarazten dituen eremu bat sortuz. Hori horrela izan arte, eskola patioek bere ibildadi tradizionalan jarraituko dute aurrera. Honen harira datoz Marina Moralesen (2021) hitzak: "La mayoría de los patios escolares son

espacios en los que no se ha intervenido en las últimas décadas y esto se traduce en un espacio sin naturaleza y con escasas oportunidades para el juego libre”. Beraz, oso beharrezkoa da, aurretik aipatutako aldaketak ematea eremu inklusibo baten apostua egiteko.

Marina Moralesen (2021) arabera, eremu irekiak, natura eta elementu solteak sortu eta eraikitzen baldin baditugu, bizikidetzeta, ongizatea eta Ingurune-Hezkuntza hobetuko da. Hori da azken finean lortu beharreko helburua, gune publiko bat izatea, non ikasle guztiak bertan aitortuak izatea eta askatasuna izatea libre mugitzeko. Espazio eta gune oso aberatsa da, eskola patioek gizarte-harremanak gehien sustatzen duten gunea da eta bertan integrazioa eta kudeaketa emozionalaren balioak hezteko gunea aproposena da.

1.4 Espazioen berrikuntzaren beharra

Aipatutako egitura tradizional horiek ez dute batere laguntzen aipatutako estimuluak transmititzeko orduan. Hik Hasi (2018) aldizkariak hainbat ezaugarri ematen ditu eskola patioen egitura tradizionala apurtzeko eta aldi berean, eskola patioak desiragarriagoak izateko orduan:

- **Mugimendua sustatuko duten espazioak:** Haur askok euren psikomotrizitatea garatzeko eta mugitzeko aukera emango dieten eremuak behar izaten dituzte. Horretarako eskalatzeko guneak, korrika egitekoak, saltoka ibiltzekoak, zirkuitu ezberdinak jartzea gomendatzen dute..
- **Espazio naturalak eta hondartegia:** Bereziki eskolako lehen urteetan naturarekin kontaktua izatea garrantzitsua da; horretarako, eskolako patioan espazio berdeei leku egin dakieke eta egurrez, landarez, harriz hornitu. Zentzu horretan, jolaserako, esploraziorako eta esperimenduzko indibidual nahiz kolektiborako aukera handia ematen duen eremua hondartegia izan ohi da. Eskola zenbaitetan, berriz, baratzak ezartzen ere ari dira naturaren eta bizitzaren zikloak esperimendatzeko ez ezik, zaintzen ikasteko ere balio dutelako (Hik Hasi, 2018).

Tierra En Las Manos (2019) blogean, Clara Pons-ek bere idazleak esaten duen moduan, ez da soilik eskola patioetan gune naturalak txertatzea eta listo baizik eta gune natural horiek amankomunean egon behar dira eskola horrekin eta bere ingurunearekin. Era

berean, bost arrazoi luzatzen ditu zeintzuk argudiatzen dutenak, gune natural horiek eskolaren ingurunearekin izan beharreko lotura.

- 1) Eskolako Lorategia natura eta ingurune hurbilena ezagutzeko modu bikaina delako.
- 2) Koherentzia gehiago duelako eta errazagoa delako bertako landaredia zaintzea, beste landare exotikoago bat baino.
- 3) Ingurunenarekin bat egiten duen, Landaredia eta egiturak dituen eskola patio bat sortzea, zein ingurunearekin bat egiten duen, ikaslea etxe-giroan sentitzea eragiten duelako.
- 4) Biodibertsitatea mantentzen laguntzea.
- 5) Ikastola bakoitzaren nortasun propioaren garrantzia.

- **Jolas sinbolikorako eremuak:** Haurren garapeneko fase batean jolas-sinbolikoak berebiziko garrantzia hartzen du, eta, beraz, ahal izanez gero horretarako eremuak ezartzea aholkatzen dute adituek. Beti ere, material egituratu gabeak eta naturalak lehenetsiz; eta aldi berean, era bateko zein besteko txokoak, gordelekuak eta intimitatean egoteko eremuak sortuz (Hik Hasi ,2018)

- **Kirol eta jolas desberdinak:** Patioan futbolaz gain, bestelako kirolak ez ezik, belaunaldiz belaunaldi transmititu diren jolasak egiteko aukerak irekitzea ere egokia izan daiteke; hala nola, soka-saltoa, ezkutaketako jolasak, harrapaketakoak, pilotakoak. .

- **Mahai jokoak eta jolas lasaiak:** Oro har gelan geldirik egon arren, patio orduan ere haur zenbaitek nahiago izaten dute lasai egotea, pasiatzea edo kontutan aritzea. Denbora libre hori modu ludikoan eta lasaian igarotzeko ezin egokiagoak izan daitezke mahai-jokoak, eskola gehienetan eskuragarri izan ohi direnak. Eta aukera bat izan liteke horiek patiora ateratzea..

Ezaugarri guzti hauek aurretik aipatutako eman beharreko estimuluekin zerikusiz zuzena dute, azken finean, ezaugarri hauek ikasleen arteko elkarrekintza, haien motrizitate garapena eta naturarekin bat egiteko aukera garbia eskaini ahal izango diete. Beraz, oso gomendagarria da eskola patioetan orain aipatutako ezaugarri hauek kontuan hartzea. Benito, Nuin eta Sorarrain (2019) bere artikuluan esaten duten moduan, aukerak ilimitatuak dira, ikasleen ideiak bezalakoak baina horretarako gure ikasleei aipatutako estimuluek eskaini behar dizkiegula.

1.5 Betidanik bideratuta egon den espazioa

Eskola patio gehienegun egituraketak eta konposizioa kirol hau aurrera eramateko baldintza ezin hobekak eskaintzen dizkiete ikasleei. Kirol honek, patioen espazio eta protagonismo osoaz jabetzen da eta honekin batera hainbat arazo ekartzen ditu argi eta garbi dago. Esan bezala, eskola patio batek espazio publikoa eskaini behar die ikasleei baina futbolak azkar batean espazio hori pribatua bilakatzen du. Ikastetxeetako jolastokietan futbolak dena menderatzen du (Molines, 2021).

Larramendik (2016) eta Cantó eta Ruizek (2005) azaltzen dute nola jolastoki gehienegun diseinuari erreparatuz gero, futbol eta saskibaloiz zelaiek, espazio osoaren azalera handiena hartzen duten eta, orokorrean, espazioaren erdigunea hartzen duten, ia eksklusiboki. Halako neurriko espazioaren beharra duten ekintza horiek, tradizionalki, mutilek praktikatu ohi dituzte eta, beraz, suposatzen du azaleraren okupaziorik handiena mutilek hartzea. Bitartean, neskek eremu askoz txikiagoa okupatzen dute eta espazioaren izkinatan kokatu ohi dira.

Futbolak hartzen duen espazioara bueltatuz, ikerketa batzuen arabera, futbolak espazioaren %80-a hartzen duela baieztatzen dute, baina aldi berean, ikasleegun %80-ak baino gehiago ez da ekintza horren protagonista (Molines, 2021). Beraz datu eta zenbaki hauetatik, hainbat ondorio atera ditzakegu. Alde batetik, honen inbasioa eta bestetik ikasleegun diskriminazioa.

Esan bezala diskriminazioa ematera bultzatzen dituzte eskola patio gehienegun. Futbolak patioaren erdialdea arakatzen du eta honen bazterretara kirol hau praktikatzen ez dituzten ikasleak egoten dira. Eskola patioak irauten duen denbora hori, ikasle batzuentzat guda-zelai baten moduan egotea dela aitortzeko baimena hartu dezaket, eta patioak irauten duen denbora horrek haientzat biziraupen froga bat da. Beraz lerro hauek bultzatzen naute esatera, eskola patio gehienegun kutsu matxista dutela, non mutilak honen jaun eta jabe direnak.

Aldi berean, Alba Caraballo (2016) *Cómo puede el niño sobrevivir en el colegio si no juega al fútbol* artikuluan esaten du ikasleak futbolera jolastuz haien artean integratzen direla, baina arazo bat ematen da futbola gustuko ez duten ikasle hauekin. Ikasle hauek sozialki markatuak geratzen dira, taldetik baztertua eta batzuetan marginatuak izatera eramaten dituzte.

1.6 Aldaketaren garaia

Eskola patioak nola eta zertan bilakatzeko inguruan bi ikuspegi nahiko ezberdinak baina aldi berean helburu nahiko berdinak plazaratu nahi ditut. Alde batetik, Clara Pons (2016) bere blogean “*Tierra En Las Manos*” eskegitako ikuspegia jorratuko dizuet. Ponsel haurtzaroko zuzenbidean lizentziatua, ibilbide profesional handia du haurren hezkuntzari dagokionez, honek hainbat artikulu eta gida desberdin argitaratu ditu haurren garapenaren inguruan.

Pons-ek (2016) hiru abiapuntu ezberdin planteatzen ditu. Lehenengoa guraso taldeak eskola patioaren aldaketaren ekimenaren buru izatea. Bere ustetan, elkarte bat osatzea izango zen hoberena, non eskolako irakasleak, guraso taldea, udaletxeko kideak eta ikasleak osaturikoa izatea. Abiapuntu honetan guraso taldeak hartuko luke ekimena, baina berak gomendatzen du behin aldaketa prozesua hasita dagoenean eskolako irakasleak honen gidaritza hartzea.

Bigarren abiapuntua, irakasle batek soilik aldaketaren ekimena hartzen duenean gerta daiteke. Nahiko lan zaila dela esaten du eta kasu horretarako aholku bat ematen du. Irakasle horrek bere ingurunera begiratzea eta soilik seguruak izango diren aldaketak egitea. Aldaketa oso erradikalak egiten baldin baditu gerta daiteke, iritzi ezberdinak jaulkitzea.

Hirugarren abiapuntua aldiz, aurreko bi abiapuntuen arteko lotura da, eta Clara Pons-en arabera hau da eskola patio aldaketareko klima egokiena, non irakasleak eta gurasoak haien arteko lanaren bitartez eraldaketarako bidea hartzen dutenean. Idazle honek eskola patioaren azkenengo produktua gune natural bat izatea defendatu eta argudiatzen du. Beraren ustetan, natura gure eskolako patioetan txertatzea onura amaigabeak ekartzen dituela baieztatzen du. Jarraian bere blogeko beste artikulu batetik jasoko ditut onura horiek;

- 1) Natura eta ingurumenaren ezagutza bultzatzen da.
- 2) Sentsazioen eta pertzepzioen zentzu estetikoa garatzen da.
- 3) Zaintza eta erantzunkizuna lantzen da.
- 4) Ingurumen hezkuntza jasotzen da.
- 5) Heziketa Fisikoa egiteko aukera ematen da.

- 6) Joko librerako gune egokiak sortzen dira.
- 7) Taldeko edo banakako jarduerak egiteko aukera ematen du.
- 8) Artea lantzeko aukera ematen du.

Beraz amaierako produktu finala lortu arte lan asko dago oraindik. Autore honek hasieran brainstorming bat egitera bultzatzen gaitu. Bertan galdera ezberdinak, iritzi ezberdinak, ideia ezberdinak agertuko dira eta horietatik hasi beharko ginateke gure eskola patioa eraldaketa ematen. Atal honetan aurretik aipatutako partaide guztiak parte hartzeko beharra dute, guztion arteko lana beharrezkoa bait da. Akordio batera iristen garenean, edo komuneko puntu batzuetara heltzen garenean, ideiei globala zein bisuala izateak asko lagunduko digu gure proiektuaren hurrengo pausuarekin ekiteko orduan. Alderdi honetan oso garrantzitsua da jakitea zer gertatzen de patioan eta guk zer nahiko genuke gertatzea.

Clara Pons-ek behin proiektuaren nondik norakoak kokatutak ditugunean, gure proiektua idazteko momentua iristen dela aitortzen du. Bertan aurretik aipatutako ideiak isladatuko dira, hauen bitartez guk nahi dugun eskola patioa eraikitzeke izango ditugun beharrak jasoko dira, hauek beti ere gure eskola patioak transmititu nahi duenarekin bat egin beharko dutela aitortzen du idazleak. Alderdi honek ez du emaitza posible bakarria, idazleak defendatzen du eskola bakoitzak bere helburua izan behar duela eta horretatik abiatu behar batzuk edo beste izango dituela. Proiektua idazteko orduan, finantziarioa, gestioak eta organizazioa lekua izango dute baita ere.

Behin proiektua garatuta dagoenean, autore honen arabera laguntza eskatu dezakegu gure proiektuaren garapena egokiagoa egiteko. Ponsen arabera arkitekto paisajista bati laguntza eskatzea gomendatzen du, berak aholkatu bai digu ze nolako zuhaitzak landatu ahal ditugun, ze nolako zoruak jarri beharko ditugun eta abar.

Gure proiektua bizitza honetan bezala, dirua balio du eta batzuetan esparru honek ikastetxea atzera botatzea edo proiektua gelditzera eramaten dituela aitortzen du idazleak. Horretarako komenigarria da hezkuntza komunitate guztia (Ikastola, Guraso Elkarteak, Udaletxea) proiektuarekin bat etortzea eta modu horren bitartez kostuak asko merketuko dira.

Hau izango litzateke, Clara Pons-en arabera eskola patioa eraldatzeko jarraitu beharreko pausuak. Lehen esan dudan moduan, ez dago bide bakarra ezta azkenengo produktu final bakarra ere. Eskola eta eskola komunitate bakoitzak bere ideiak izango ditu eta aldi berean eskola bakoitzak berezko testuinguru bat izango du. Horretatik abiatuz proiektu ezberdinak baina aldi berean bata beste bezain aberatsak sortzeko gai izango ginateke.

Ahinitze Errasti-k Alea aldizkarian gure eskoletako patioak eraldatzeko beste prozedura bat azaltzen digu. Ahinitze Errasti *Nondik Arkitektura* eta *Hezkuntza-Ikerkuntza* estudioko partaide da, eta esaten duen moduan geroz eta ikastetxe gehiago hurbiltzen dira haiengana aholku eske. “Eremu horiek funtsean ez dira edukiontzi huts eta sinple batzuk, baizik eta komunikatzen duten egitura eta bertan dagoen bizitza horretan eragina dute”. Hitz hauek dira Errastik bere lanaren oinarria hau dela aitortzen dutenak, hau da, haien proposamenak aipatutakoari erantzuna emateko sortzen dira. Beraz, proposamen horiek amaiera batera iristeko, prozesu guztietan hiru fase jarraitzen dituztela aitortu du.

Lehenik eta behin, *kontzientzia saioak* prestantzen dituzte. Saio hauetan eskola komunitateari gaia aurkezten diete. Fase honekin batera, bigarren fasea etorriko litzateke, *prozesu parte-hartzailearena*. Honetan diagnosis egin, galdetegiak bete eta jasotzen dira eta hainbat dinamika sortzen dira ahalik eta informazio gehien ateratzeko helburuarekin. Honen bitartez, eskola komunitateko egitasmo pedagogikoa zein den ulertzera ailegatu gaitezke. Errastiren arabera, “hezkuntza komunitateak gaiari buruz zer duen esateko entzuten eta ulertzen datza”. Azkenik *estudio lanaren* fasea dator, bertan proiektuaren diseinua garatzen da.

Hauek dira *Nondik Arkitektura* eta *Hezkuntza-Ikerkuntza* estudioak eskola patioen eraldaketa emateko orduan jarraitzen dituen faseak. Haien esanetan, haiengana hurbiltzen diren eskola gehienak helburu berdina edo nahiko antzekoa dute, eskola patio egitura tradizionalarekin apurtzea eta ikuspegi inklusibo eta anitzagoa sortzea. Hau da futbolzentrismotik aldentzea eta naturarekin erlazionatutako guneak, esperimentatzeko guneak, jolas sinbolikoetarako guneak, lasai egoteko guneak edota aske mugitzeko guneak sortzea.

1.7 Pandemia garaia

Fernando Boillos (2021) aitortzen du, pandemia egoera honek bizkortu edo azkartu egin duela eskola patioak eraldatzeko prozesua. Beraren hitzetan, egoera honen ondorioz, gure patioei eskatzen diegu naturarekin erlazio zuzenagoa izatea, inklusiboagoak izatea, berdintsuna eskaintzea. Ikastola gehienak premia hauetara ezin dira moldatu eta agerian utzi da eskola patioek berrikuntza bat eskatzen dutela. Beraz egoera honek oraindik ere gure ikasleei baliabide gutxiago ematen die. Beste alde batetik, Pandemia honek eragin du futbola gure eskola patioetatik ezabatzea. Egoera honek, jolas tradizionaleri atea berriz ere ireki egin die.

Fernando Boillos (2021) esaten du nahiz eta pandemia egoera baten aurrean egonda, eskola patioak aurrera egin behar dutela haien berrikuntza planean. Eskola patioak berriz ere loratu egin behar dira pandemia garai honen ondoren, eta eskolaren barruan eta hezkuntza sistemaren barruan duten lekua aldarrikatzea eta lortzea.

Beraz, agerian geratu da eskola patioek beharrezkoa duten aldaketa iraultza. Eskola patioek ikasleei haien hezkuntza prozesuan pisu handia duen espazioa da, eta hau egoki eta zintsotasunez zaindu behar da. Aldaketa horiek gure ikasleengan garapena sortu dezake hainbat esparrutan, beraz aprobetxatu dezagun. Ahinitze Errastik (2021) arabera, aldaketa txiki baten bitartez ikasleengan ekarpen positiboa eragin dezakegu.

2. Helburuak

Araia Herri Eskolako patioa analisatzea eta bertan berrikuntza zein aldaketak emateko, hainbat aldaketa proposatzea du helburu lan honek. Aldi berean, proposamen honek bi azpi helburu izango ditu.

Lehenengo helburua, pandemia aurretiko ikasturtean eta aurtengo ikasturteko eskola zehatz bateko eskola patioaren espazioa eta bertan ikasleak dituzten harremanak aztertzeo helburua. Puntu honetan jarraian zehazten diren azpi puntuetan jarriko da fokoa:

- Eskola patioko espazio edo guneak aztertzea.
- Ikasleek erabiltzen dituzten materialak aztertzea.

- Ikasleen arteko elkarrekintza aztertzea.
- Espazio bakoitzeko neska eta mutilen ekintzak aztertzea.

Bigarren helburua, eskola patio zehatz horretarako hainbat aldaketa proposamen egitea izango da helburu. Hainbat esparrutan zentratuz:

- Gune berriak eratzea.
- Material berriak plazaratzea.
- Elkarrekintza berriak sustatzeko elementuak sortzea.
- Eskola patio inklusiboa eratzea.
- Naturarekin lotura dituzten elementu eta guneak eratzea.

3. Metodologia

3.1 Lagina

Sarreran azaldu den moduan, ikerketa Araiako Herri Eskolan aurrera eramán da. Ikerketa lan honetan Lehen Hezkuntzako ikasleak izango dira protagonistak. Lerro bakarreko ikastetxea izanez, Lehen Hezkuntzako ikasle guzti hauek eskola patio ordu berdina partekatzen dute; 11:30-tatik, 12:00-tara.

Lehen Hezkuntzako ikasle horiek hurrengoko lagina bete dute;

MAILA	NESKA	MUTILAK	GUZTIRA
LH1	5	6	11
LH2	9	11	20
LH3	7	12	19
LH4	9	6	15
LH5	10	6	16
LH6	15	10	25
GUZTIRA	55	51	106

3.2 Instrumentuak

Lehenengo helburua betetzeko behaketa taula bat osatu da. Behaketa taula honen bitartez, lehenengo helburuan zehaztutako azpi egiturak jasoko ditu taula honek. Ikerketa hau marko teorikoan plazaratutako eskola patio tradizional antzeko baten aurrean egonda. Beraz ikerketa hori bideratzeko orduan, sortutako aztergaiak eskola patio tradizional honekin egongo dira lotuta.

Aztergaiak hiru taulatan egongo dira bereizirik. Taulak espazioa desberdin bakoitzaren arabera sortuak izan dira. Espazio horretan gertatutakoaz gain, beste bi aztergai gehituko dira. Alde batetik ikasleek erabiltzen dituzten materialak aztertzea eta beste alde batetik ikasleen arteko elkarrekintza aztertzea.

Espazioak eta aldi berean sortuko diren taulak hauek izango dira; Lehenengo taulan, saskibaloiko kantxa hartzen duen espazioa aztertuko da, bigarren taulan porlanezko eremuak hartzen duen espazioa aztertuko da eta azkenik aterpe barruko espazioa izango da aztergai. Esan bezala, aztertuko espazio bakoitzaren taula horretan, erabilitako materialak eta ikasleen arteko elkarrekintzei erreparatuko zaie.

3.3 Prozedimendua

Behaketa taula hauek osatzeko Practicum III-ko praktketan zehar analisatutakoaren ondorioz lortu dira. Hiru hilabetez ikastetxe honetan egoteko aukera izan ondoren, honetaz gain, practicum-a bukatu ondoren egun batean bertaratzeko aukera izan dut. Egundorretan oraindik ebatzi gabeko detaileak argitzeko aukera izanez. Horretarako Ikastetxe honetako zuzendaritza taldearekin hitz egin da, hauen onespina jasotzeko.

Bestalde, sarreran argitu den bezala, eskola patioak pandemia ikasturte honetan eta pandemia gabeko ikasturte horietako eskola patioen arteko analisisa burutu nahi izan da. Horretarako instrumentuetan aipatutako taula berdina erabiliko dira, eta taula horiek betetzeko orduan Practicum I-eko bizipenengatik bideratuta egongo da.

Behaketa honetan ez dira izan behar argazkiak ateratzea eta are gehiago ikasleen datu espezifikoak erabiltzea. Soilik laginean betetako taularen informazioa betetzeko informazioa eskatu da.

Bukatzeko taulak zintzotasunez bete izan dira, eta horietatik abiatuta analisia burutu izan da. Analisi horretan jasotako datuak kualitatiboki jaso eta interpretatu izan dira eta horietatik hainbat emaitza ateratzeko aukera egon da.

4. Emaitzak

Emaitzak ondo interpretatzeko beharrezkoa da Araia Herri Eskolako patioaren egituraketa zein den ezagutzea. Aurretik aipatu bezala, taulak eskola honek dituen hiru gune edo espazio desberdinen inguruan aztertzeko aukera egon da. Horretarako hiru espazio horiek aurkeztea beharrezkoa da. Alde batetik, eskola patio hau goitik begiratuta nola ikusten den eta nola banatzen den aurkeztuko da eta gero gune bakoitzeko argazki eta aurkezpena jasoko da.



- **Lehenengo gunea:** Saskibaloiko kantxa eta honen bazterrak dira. Bertan saskibaloiko bi saski aurkitzen dira eta honen bazterretan soilik porlana aurkitzen da. II Eranskinean, aurkitu dezakezu gune honen gertuko argazki bat.
- **Bigarren gunea:** Porlanaezko eremua da hau. Bertan, goian dagoen argazkian ikusi ahal den moduan, porlanezko laukizuzen bat da. Laukizuzen horretan eskolako logoa dago margotuta. II Eranskinean, aurkitu dezakezue gune honetako gertuko argazkia.
- **Hirugarren gunea:** Aterpearen gunea da hau. Ikastetxeko aterpea da, bertan futboleko kantxa bat aurkitzen da. Bi ate ditu, II eranskinean gune honen argazkia aurkituko duzue. Euria egiten duen egunetan ikasle guztiak bertan sartzen dira patioak irauten duen denboran zehar.

Laginean ikusten den bezala, Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak batera egoten dira patio orduan zehar, baina aurtengo ikasturtean aldaketa esanguratsua eman da pandemia egoerarengatik. Ikasleak, haien klasekideekin batera egon behar dira patio orduan zehar eta soilik mugatutako gune batean mugitu daitezke. Hau behaketa tauletan modu arginean adieraziko da, nahiz eta nahiko lan saia den.

Behin ikastola honetako patioaren egitura azalduta, pandemia aurretik jasotako emaitzak ahalik eta modu garbienean eta ulergarrienean plazaratuko dira. Hauek behin plazaratuta, pandemia ikasturte honetan jasotako emaitzak modu objektiboan luzatuko dira. Hauek espazio bakoitzean duten eragina azalduz.

- Saskibaloiko eremua eta honen bazterrak

- *Pandemia aurretiko ikasturteko emaitzak*

Pandemia aurretik izandako ikasturtean, ikasle nagusienak izan dira espazio honetan jaun eta jabe izan direnak. Espazio hau haietzako hartu izan dute, haien arauak eta jolasteko moduak ezarriz. Baliteke egun batzuetan ikasle txikiagoei bietako saski bat haiei ustea, baina gehienetan haiek ziren zelai guztiaren jabeak. Argi eta garbi gertazen da, espazio hau soilik saskibaloian jolasteko erabiltzen dela, zehazki haien arteko saskibalo partiduak jolasteko. Haien arteko partiduak esaten dudanean, mutilak dira parte hartzen dutenak. Baliteke egunen batean neskaren batek haiekin jolastea, baina ez da normalen gertatzen.

Zelai honen bazterretan, aldiz, saskibalaoian jolastu nahi ez duten ikasleak ibiltzen dira. Bazterretan aldiz, neskak eta mutilak haien artean ibiltzen dira haien arteko elkarrekintza emanez.

Materialari dagokionez, saskibaloiko zelaian soilik bi baloi izaten dira jolasteko. Material hori ez da modu ekitatiboan banatzen, hots, irakasle gelara iristen den ikaslea baloiak eskatu eta horiekin hasten da jolasean. Baina hemen baita ere ikasle nagusienak dira lasterketa honetan irabazle ateratzen direnak, haiek bai dira irakasle gelara heltzen

lehenengoak eta horren ondorioz baloien aginte makila hartzen dutenak. Materialaren ondorioz, hainbat istilu eman dira, beti ere ikasle nagusienak nork berea egiten jarraitu duten.

Beraz, ikusi daitekeen moduan, mutilak dira gune edo espazio honen protagonistak. Haiek dira espazio hau monopolizatzen dutenak eta haiek nahi duten horretara jolastera behartuta daude. Gustatzen ez bazaie, bazterrak beti libre izango dituzte, haiek nahi duten horretara jolasteko edo behintzat inoren menpe ez egoteko.

- *Pandemia ikasturteko emaitzak*

Pandemia ikasturte honetan, emaitzak zeharo desberdinak dira. Pandemia egoera honengatik ikasleak haien gelako ikasleekin soilik egon ahal dira, eta gela bakoitzak bere gunea du jolastokiko ordu erdi horretan. Hala ere espazio honetan gertatukoaren berri emango da hurrengo lerrotan.

Saskibaloiko eremu honetan, urte honetan ez da espazioa bereizten. Hau da, ez dute alde batetik saskibaloiko zelaia eta beste aldetik honen inguruko bazterrak. Oraingoan, porlanezko laukizuzen baten moduan ikusten da espazioa. Espazio hori bere osotasunean erabiltzen da. Ikasturte honetan espazio honetan ikasleak libreki jolasteko erabiltzen da, eta baita ere jolasteko ordu honetan mutilak eta neskak batera jolasten dute edo behintzat haien arteko elkarrekintza sustatzen da.

Ikasturte honen eraginez, material komunitarioa desagertzeko beharra eman da. Hau da, baloiak, pilotak patioetatik desagertu egin dira eta espazio honetan ikasleak bere etxetatik ekarritako jostailu edo tramankuluekin ibili dira, beti ere hauek guztioen artean ezin partekatuz.

Ikus daiteke moduan, pandemiako urte honek, espazio honetan mutilak eta neskak batera jolasten aritzea eragin du. Jolas horietan, jolas tradizionalen figura agertzen da. Haiek bai dira jolasari hasiera ematen dutenak. Ez dago espazio hau monopolizatzen duen ikaslerik, hau da, ez da rol bereizgarri agertzen eta honen ondorioz inork ez du hartzen espazioaren kontrola.

- **Porlanezko eremua**

- *Pandemia aurretiko ikasturteko emaitzak*

Pandemia aurreko ikasturtean, espazio hau ez da banatzen. Hau da, bertan ez dira txoko desberdinak bereizten. Bertan ikasle guztiak libreki aritzen dira jolasean, beraz esan dezakegu espazio hau denona dela, edo ikasle guztien gozamenerako leku dagoela. Espazio honetan esan bezala libreki jolasteko erabiltzen da, bertan soka saltoan, baloiekin, liburuekin ibiltzen dira ikasleak. Aldi berean ikasleen joan etorriak ematen dira espazio honetan, baina beti ere ikasleren bat dabilta jolasean eremu honetan. Gune honetan neskak zein mutilak haien artean espazioa partekatzen dute, bai jolasten dabiltzaten momentu horietan, bai haien artean hizketan ibiltzen diren momentu horietan.

Materialari dagokionez, esan dezaket material nahikoa dagoela ikasleen eskura. Sokak, baloiak, liburuak, margoak ikasleen gozamenerako eskaintzen dira. Aldi berean, ikasleek haien etxetik ekarritako jostailuekin aritzeko aukera dute, eta hauek haien artean partekatzeko aukera dute. Hala ere, materiala banatzeko orduan, materiala ez da modu sistematiko batean banatzen, ikasleak nahi duten horrekin aritzeko aukera dute eta honetaz aspertzen direnean bertan usten dute eta haien nahiak asetzen dituen beste jostailu edo zeregin batera mugitzen dira.

Espazio honetan ikasle guztiak haien artean aritzen dira. Mutilak eta neskak batera aritzen dira, bai jolasean bai hitz egiten. Gune honetan ez da rol bereizgarriarik ematen, ikasle guztiak espazio honen eta haien gorputzen jabeak dira, momentu oro nahi duten hori egiteko aukera ematen dien espazioa da hau.

- *Pandemia ikasturteko emaitzak*

Pandemia ikasturte honetan, espazioarekiko erlazioari dagokionez ez da asko aldatu pandemia aurreko ikasturtearekin alderatuz. Espazio guztia erabiltzen da eta hau ez da txoko desberdinetan banatu. Espazio hau ikasleak libreki jolasteko eta aritzeko aukera ematen du, eta neska eta mutilak haien artean espazio hau partekatzen jarraitzen dute.

Materialei dagokionez pandemia egoera honengatik ezin da material komunitarioa erabili. Gehienez, ikasle bakoitzak bere etxetik jostailuren bat ekarri dezake, baina hori ezin da esku guztietatik igaro. Ikastolak ez du materialik eskaintzen eta esan bezala gehinez ikasle bakoitzak bere materiala ekarri behar du.

Ikalseen arteko elkarrekintzari dagokionez, pandemiako ikasturte honek ez ditu espazio honen ohiturak aldatu. Mutilak eta neskek elkarrekin jarraitzen dute, hala ere espazio nahiko handia denez, egun batzuetan mutilak haien artean ibili dira jolasean eta neskek aldiz haien kabuz jolasean ibili dira. Jolastokiko ordu erdi hau, jolas tradizionaletara jolasten ibili dira eta zapitxoa eta harrapaketa dira gailentzen diren jolasak. Gune honetan ez da rol bereizgarririk antzematen, baliteke gela baten barruan ikasleren bat agintaritza modukoa izatea, eta hau batzuetan jolastoki orduetara luzatzen da. Baina esan inork ez duela espazio honen kontrola.

- **Aterpe barruko espazioa**

- *Pandemia aurretiko ikasturteko emaitzak*

Pandemia aurretik emandako ikasturtean, espazio hau ez da banatzen. Soilik funtzio bat dauka, futboleko aritzea. Futbol partiduak ematen dira egunero, basatien moduan aritu eta haien arteko lehia sustatzen da egunero. Espazio honen jabeak mutilak dira, haiek dute espazio honen agintaritza. Mutilak izateaz gain, LH-5 eta LH-6-ko ikasleak dira aginduak ematen dituztenak. Haiek dira jolasten ustean dituztenak eta handik botatzeko erabakia hartzen dutenak. Argi dagoenez, espazio honetan mutilak eta neskek ez dute haien artean espazioa partekatzen, ezta aukerarik ere.

Espazio honetan logikoa den moduan, futboleko baloi batekin jolasten dira. Gehienetan ikastolak utzitakoa da, hau da, irakasle gelara iristen den lehenengo ikasleak eskatu eta azkar batean hau aterpera eramaten du ahalik eta denbora gutxien galtzeko helburuarekin. Egun batzuetan ikasleren batek bere etxetik ekarritako baloia erabili izan da.

Ikasleen arteko elkarrekintzari dagokionez, argi dago soilik mutilak direla haien arteko elkarrekintza sustatzen dutenak. Hauek bai dira espazio honetan jolasten duten bakarrak. Egia da, egun batzuetan neskaren bat handik agertzea futbolera jolasteko gogoekin,

baina minutu gutxi batzuk nahikoak dira handik beldurtuta ateratzeko. Mutilak rol protagonista dute, aldiz neskak ez dute protagonismorik gune honetan, azken batean espazio honetan ez bai dira ibiltzen. Inposizio moduko lege bat dagoela esan dezakgu, non mutilak jaun eta jabe diren, bai espazioari dagokionez eta nork jolasteko onarpenari dagokionez. Ezin garbiago ikusten da, espazio honen aginte makila mutilak dutela.

- *Pandemia ikasturteko emaitzak*

Pandemia ikasturte honetan, espazio honetan aldaketa nabariak eman direla argi eta garbi geratu da. Espazio hau ez da futboleko jolasteko erabiltzen eta espazio hau libreki jolasteko erabiltzen da. Ikasturte honetan, neskak eta mutilak haien artean espazio hau partekatzen dute inolako arazorik gabe, haien artean jolasean ibiliz edo hitz egiten.

Aurreko guneetan esan bezala, pandemia honetan material komunitarioa ezin da erabili eta distantziak mantendu behar direnez ezin dira ikasleak futboleko aritu, dena den zeoer asmatu izan dute kirol honetara jolasten jarraitzeko baina haien saiakera ez du etorkizunik izan. Gune honetan ere, ikasleak haien etxetik ekarritako jostailu edo gauzekin ibiltzeko aukera dute, beti ere hauek partekatu gabe.

Ikasleen arteko elkarrekintza zeharo aldatu egin da, ikasturte honetan mutilak eta neskak elkarrekin aritu dira espazio honetan. Baliteke egun batzuetan haien arteko bereizketa ematea, hau da mutilka alde batetik ibiltzea eta neskak beste alde batetik. Hala ere, jolasteko orduan batera ibili dira. Aurreko guneetan bezala jolas tradizionaletan ibili dira jolasean, aurretik aipatutako jolasetan arituz. Urte honetan ez da rol bereizgarrikerik antzeman, mutilek aurreko urtetako monopolioa galdu dute eta horrekin batera espazio edo gune honen kontrola. Baliteke gela bakoitzaren barruan ikaslearen batek protagonista paper hori izatea eta patio ordura luzatzea eta berak esandako horretara jolastea. Hala ere ziurtasunez esan dezaket, gune edo espazio honetan inork ez duela kontrola.

Hurrengo orrialdetan emaitza hauek plazaratu dizkidaten behaketa taulak aurkitu ditzakezue.

PANDEMIA AURRETIK

SASKIBALOIKO ZELAIAREN ETA HONEN BAZTERREN EREMUA		
AZTERGAIAK	GALDERA IKERTZAILEAK	JASOTAKO DATUAK
ESPAZIOAREKIKO ERLAZIOA	Nola banatzen da espazioa?	<ul style="list-style-type: none"> - Gehienetan ikasle nagusienak dira espazio honetaz bereganatzen direnak. - Ikasle hauek, haientzako hartzen dute espazio osoa. - Noiz behin, saski bat txikiagoak diren ikasleei usten diete.
	Zertarako erabiltzen da espazioa?	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioa soilik saskibaloian jolasteko erabiltzen da, hots, partidu bat jolasteko. - Bazterretan saskibaloian jolastu nahi ez duten ikasleak ibiltzen dira libreki jolasten.
	Espazio guztia erabiltzen da?	<ul style="list-style-type: none"> - Saskibaloiko eremua osoa erabiltzen da. - Bazterretan, aldiz, ikasleen joan etorriak ematen dira.
	Neskak eta mutilak espazioa partekatzen dute?	<ul style="list-style-type: none"> - Saskibaloian jolasten duten ikasle gehienak mutilak dira. - Baliteke egun batzuetan neskaren bat haiekin jolastea. - Bazterretan aldiz, neskak eta mutilak espazioa partekatzen dute.
MATERIALEKIKO ERLAZIOA	Zer materialekin ibiltzen dira?	<ul style="list-style-type: none"> - Saskibaloiko eremuan edo kantxan soilik saskibaloiko bi baloi erabiltzen dira. - Aldiz, bazterretan ikasleak nahi dutenarekin ibili daitezke, hau da, etxetik ekarritako edozein jostailu, karta edo abarreko gauzekin.
	Guztiontzako material nahikoa?	<ul style="list-style-type: none"> - Nire ustetan ez da material nahikoa. - Batzuetan istiluak ematen dira baloiengatik.
	Nola banatzen da materiala?	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasle gelara iristen den lehenengo ikasleak baloiak eskatzen ditu. - Gehienetan, ikasle nagusiak izaten dira. Baloiak hartzeaz gain, zelaia ere hartzen dute.
IKASLEEN ARTEKO ELKARREKINTZA	Mutilak eta neskak batera jolasten dute?	<ul style="list-style-type: none"> - Gehienetan ez dira batera jolasten, egun batzuetan neskaren bat mutilekin jolastu du.
	Ze rol dituzte mutilak eta neskak?	<ul style="list-style-type: none"> - Mutilak rol protagonista dute. Aldiz neskak, bazterretatik ibiltzen dira.
	Nor hartzen du kontrola?	<ul style="list-style-type: none"> - Mutilak hartzen dute kontrola. Mutil horietatik, LH-5 eta LH-6-ko ikasleak.

PORLANEZKO EREMUA		
AZTERGAIAK	GALDERA IKERTZAILEAK	JASOTAKO DATUAK
ESPAZIOAREKIKO ERLAZIOA	Nola banatzen da espazioa?	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioa ez da banatzen. - Ikasle guztiak libreki mugitzen dira espazio honetan zehar. - Ez daude txoko bereizgarriak, beraz espazioa “denona” dela esan dezakegu.
	Zertarako erabiltzen da espazioa?	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioa libreki jolasteko erabiltzen da (soka saltoan, baloiekin, liburuak irakurtzeko...) - Nagusienak patio orduan espazio honetan egiten dituzte etxerako lanak.
	Espazio guztia erabiltzen da?	<ul style="list-style-type: none"> - Porlanezko eremu hau nahiko ondo erabiltzen da, eta espazio guztia hartzen da. - Ikasleen joan etorriak ematen dira, hala ere beti ikasleren bat aurkitzen da hemendik jolasean.
	Neskak eta mutilak espazioa partekatzen dute?	<ul style="list-style-type: none"> - Gune honetan neska zein mutilak haien artean espazioa partekatzen dute. - Bai jolasten dabiltzan momentu horietan, bai haien artean hitz egiten daudenean.
MATERIALEKIKO ERLAZIOA	Zer materialekin ibiltzen dira?	<ul style="list-style-type: none"> - Material ugari aurkitzen da gune honetan, sokak, baloiak, liburuak, margoak, kartak...
	Guztiontzako material nahikoa?	<ul style="list-style-type: none"> - Nire ustetan material nahikoa dago gune honetan. - Ikasleak haien etxetik ekartzen dituzten jostailuekin jolasteko eremua da, beraz ez da falta materialik.
	Nola banatzen da materiala?	<ul style="list-style-type: none"> - Materiala ez da modu sistematiko batean banatzen. Ikasleak nahi duten horrekin ibiltzen dira eta aspertzen direnean bertan ustean dute.
IKASLEEN ARTEKO ELKARREKINTZA	Mutilak eta neskek batera jolasten dute?	<ul style="list-style-type: none"> - Espazio honetan mutilak eta neskek batera aritzen dira, bai jolasean bai haien arteko elkarrekintzan.
	Ze rol dituzte mutilak eta neskek?	<ul style="list-style-type: none"> - Gune honetan ez da rolik ematen. Ikasle bakoitzak egin nahi duen horretan ibiltzen da.
	Nor hartzen du kontrola?	<ul style="list-style-type: none"> - Gune honetan inork ez dauka kontrola, espazio “publikoa” dela esan genezake, inoren agintaritzaren sufriz duena.

ATERPE BARRUKO ESPAZIOA		
AZTERGAIAK	GALDERA IKERTZAILEAK	JASOTAKO DATUAK
ESPAZIOAREKIKO ERLAZIOA	Nola banatzen da espazioa?	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioa ez da banatzen. - Kantxa osoa erabiltzen da futbolean aritzeko.
	Zertarako erabiltzen da espazioa?	<ul style="list-style-type: none"> - Futbolean jolasteko erabiltzen da.
	Espazio guztia erabiltzen da?	<ul style="list-style-type: none"> - Espazio guztia erabiltzen da.
	Neskak eta mutilak espazioa partekatzen dute?	<ul style="list-style-type: none"> - Espazio honetan neskek eta mutilek ez dute espazioa partekatzen. - Soilik mutilak dira espazio honetan partaide.
MATERIALEKIKO ERLAZIOA	Zer materialekin ibiltzen dira?	<ul style="list-style-type: none"> - Futboleko baloi batekin ibiltzen dira bakarrik. - Ikastolak utzitako edo etxetik ekarritako.
	Guztiontzako material nahikoa?	<ul style="list-style-type: none"> - Material nahiko dela esan dezaket, azken finean soilik futbolean aritzeko eremua da eta baloi batekin nahiko dela esan dezaket.
	Nola banatzen da materiala?	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasle gelara iristen den lehenengo ikasleak baloiak eskatzen ditu. - Gehienetan, ikasle nagusiak izaten dira. Baloiak hartzeaz gain, zelaia ere hartzen dute.
IKASLEEN ARTEKO ELKARREKINTZA	Mutilak eta neskek batera jolasten dute?	<ul style="list-style-type: none"> - Bakarrik mutilak jolasten dute espazio honetan. - Egun batzuetan neskaren bat handik hurbiltzen da jolasteko gogoekin, baina minutu gutxi batzuk soberan dira handik irtetzeko.
	Ze rol dituzte mutilak eta neskek?	<ul style="list-style-type: none"> - Mutilak rol protagonista dute, aldiz neskek gune honetan ez dute protagonismorik. - Neskek ez dute protagonismorik espazio honetan ez direlako sartzen. - Inposizio moduko lege bat dago, non mutilak espazio honen jaun eta jabe diren.
	Nor hartzen du kontrola?	<ul style="list-style-type: none"> - Argi eta garbi ikusten da mutilak direla espazio honetan aginte makila dutenak.

PANDEMIA URTEAN

SASKIBALOIKO ZELAIAREN ETA HONEN BAZTERREN EREMUA		
AZTERGAIK	GALDERA IKERTZAILEAK	JASOTAKO DATUAK
ESPAZIOAREKIKO ERLAZIOA	Nola banatzen da espazioa?	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioa ez da banatzen. - Espazioa bere osotasunean erabiltzen da.
	Zertarako erabiltzen da espazioa?	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioa libreki jolasteko, haien artean hitz egiteko erabiltzen da.
	Espazio guztia erabiltzen da?	<ul style="list-style-type: none"> - Espazio guztia erabiltzen da.
	Neskak eta mutilak espazioa partekatzen dute?	<ul style="list-style-type: none"> - Mutilak eta neskak espazioa partekatzen dute.
MATERIALEKIKO ERLAZIOA	Zer materialekin ibiltzen dira?	<ul style="list-style-type: none"> - Pandemia egoera honengatik ezin da material komunitarioa erabili. Gehienez, ikasle bakoitzak bere etxetik jostailuren bat ekarri dezake, baina hori ezin da esku guztietatik igaro.
	Guztionez material nahikoa?	<ul style="list-style-type: none"> - Pandemia urte honetan eskolak ez du material komunitarioa usten.
	Nola banatzen da materiala?	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasle bakoitzak bere materiala izan behar du.
IKASLEEN ARTEKO ELKARREKINTZA	Mutilak eta neskak batera jolasten dute?	<ul style="list-style-type: none"> - Mutilak eta neskak haien artean jolasten dira. - Jolas tradizionalekin jolasten dira (zapitxoa, harrapaketa...)
	Ze rol dituzte mutilak eta neskak?	<ul style="list-style-type: none"> - Generoaren aldetik ez dago rol bereizgarririk. - Gela bakoitzean dakigunez ikaslearen batek beti rol protagonista du eta hau patiora transmititzen da.
	Nor hartzen du kontrola?	<ul style="list-style-type: none"> - Inork ez du hartzen espazioaren kontrola.

PORLANEZKO EREMUA		
AZTERGAIAK	GALDERA IKERTZAILEAK	JASOTAKO DATUAK
ESPAZIOAREKIKO ERLAZIOA	Nola banatzen da espazioa?	- Espazioa ez da banatzen.
	Zertarako erabiltzen da espazioa?	- Espazioa libreki jolasteko, hitz egiteko, irakurtzeko... erabiltzen da.
	Espazio guztia erabiltzen da?	- Espazio guztia erabiltzen da.
	Neskak eta mutilak espazioa partekatzen dute?	- Mutilak eta neskek espazioa partekatzen dute.
MATERIALEKIKO ERLAZIOA	Zer materialekin ibiltzen dira?	- Pandemia egoera honengatik ezin da material komunitarioa erabili. Gehienez, ikasle bakoitzak bere etxetik jostailuren bat ekarri dezake, baina hori ezin da esku guztietatik igaro.
	Guztiontzako material nahikoa?	- Pandemia urte honetan eskolak ez du material komunitarioa usten.
	Nola banatzen da materiala?	- Ikasle bakoitzak bere materiala izan behar du.
IKASLEEN ARTEKO ELKARREKINTZA	Mutilak eta neskek batera jolasten dute?	- Mutilak eta neskek haien artean jolasten dira gehienetan. - Neskak haien aldetik ibiltzen dira edota haien aldetik ibiltzen dira noiz behinka. - Jolas tradizionalekin jolasten dira (zapitxoa, harrapaketara...)
	Ze rol dituzte mutilak eta neskek?	- Ez da rol bereizgarririk ematen. - Baliteke gela baten barruan ikasle batek rol protagonista izatea eta hori patio orduran zehar baita ere ematea.
	Nor hartzen du kontrola?	- Ez du inork espazio honen kontrola hartzen.

ATERPE BARRUKO ESPAZIOA		
AZTERGAIK	GALDERA IKERTZAILEAK	JASOTAKO DATUAK
ESPAZIOAREKIKO ERLAZIOA	Nola banatzen da espazioa?	- Espazioa ez da banatzen, ikasleak bertan aritzen dira espazio osoan zehar.
	Zertarako erabiltzen da espazioa?	- Espazioa libreki jolasteko, hitz egiteko erabiltzen da.
	Espazio guztia erabiltzen da?	- Espazioa guztia hartzen da.
	Neskak eta mutilak espazioa partekatzen dute?	- Espazio honetan mutilak eta neskek batera ibiltzen dira.
MATERIALEKIKO ERLAZIOA	Zer materialekin ibiltzen dira?	- Pandemia egoera honengatik ezin da material komunitarioa erabili. Gehienez, ikasle bakoitzak bere etxetik jostailuren bat ekarri dezake, baina hori ezin da esku guztietatik igaro.
	Guztiontzako material nahikoa?	- Pandemia urte honetan eskolak ez du material komunitarioa usten.
	Nola banatzen da materiala?	- Ikasle bakoitzak bere materiala izan behar du.
IKASLEEN ARTEKO ELKARREKINTZA	Mutilak eta neskek batera jolasten dute?	- Mutilak eta neskek haien artean jolasten dira gehienetan. - Neskak haien aldetik ibiltzen dira edota haien aldetik ibiltzen dira noiz behinka. - Jolas tradizionalekin jolasten dira (zapitxoa, harrapaketara...)
	Ze rol dituzte mutilak eta neskek?	- Ez da rol bereizgarririk ematen. - Baliteke gela baten barruan ikasle batek rol protagonista izatea eta hori patio orduran zehar baita ere ematea.
	Nor hartzen du kontrola?	- Ez du inork espazio honen kontrola hartzen.

5. Ondorioak

Ikerketa lan honetako emaitzek hainbat ondorio ateratzeko aukera eman didate. Covid-19-ak sortutako pandemiak aldaketa esanguratsuak ekarri izan ditu gure eskola patioetara eta hauen eskaintza pedagogiko txiroa begi bistan utzi egin du. Ondorio nagusi bezala esan dezakegu, eskola patioeko egiturak asko markatzen duela gure ikasleen hartu emanetan. Marko teoriokoarekin lotura eginik, Marina Moralesen (2021) arabera, eremu irekiak, natura eta elementu solteak sortu eta eraikitzen baldin baditugu, bizikidetzak, ongizatea eta Ingurune-Hezkuntza hobetuko da.

Eskola patioen inguruko alderdi ilunenak behatuta, duela urte bat mundua hankaz gora jarri duen pandemiak eskola patioetan eragin zuzena eta garbia izan du. Pandemia honek nire ustetan bi alderdi garrantzitsu utzi dizkigu agerian eskola patioei dagokionez. Alde batetik, pandemiak futbolaren monopolioa apurtu duela eskola patioetan eta beste alde batetik, eskola patioek ikasleei egoera honetan eskaintzen dieten baliabide eta aukera eskasia.

Ateraratako ondorioak bi ataletan banatu egingo dira, alde batetik, pandemia aurreko ikasturteko atalean eta beste alde batetik pandemia ikasturte honetan.

- **Pandemia aurretiko ikasturteko ondorioak**

Espazioari dagokionez argi eta garbi dago Araia Eskolako patioak bi kirol zituela protagonista moduan. Alde batetik saskibaloia eta beste alde batetik futbola ziren eskola patio honetako errege-erreginak. Behaketa honen bitartez, bi kirol hauetan genero maskulinoa gailentzen zela argi geratzeko aukera eman dit, mutilak bait dira bi espazio edo gune hauetako agintariak. Haiek dute kontrola, eta haiek dira gune horietan arauak jartzen dituztenak eta gune horietan nor sartu eta jolastu dezaketanak aukeratzen dutenak. Aldiz, saskibaloiko eremu bazterretan eta porlanezko eremuan ikasleen arteko elkarrekintza sustatzeko aukera ematen diete. Aldi berean saskibaloiko zelaian eta aterpe barruko eremuan ez da elkarrekintza positiboa sustatzen. Soilik, lehia indartzen da, non ikasleek bestea baino gehio izateko helburu bakarra duena.

Aldi berean ikasturte honetako patioetan ikasleen artean elkarrekintza gehiago ikusi ahal izan da. Ikasle guztiak haien artean hartu emanak izateko aukera zuten, eta bakoitzak nahi zuenarekin erlazionatzeko aukera zuen. Bazterretan ikasleen joan etorriak izaten dira normalean, bazter hauek ez bai dute baliabiderik eskaintzen ikasleei eta aldi berean saskibaloiko eremuaren ondoan denbora luzean egoteak arriskua izan dezake eta . Horrekin batera, materiala partekatzeko aukera aberatsagoa egiten du ikasleen arteko elkarrekintza ematea. Materialaren aldetik uste dut, gune batzuetarako material nahiko zegoela baina porlanezko gunerako material eskasa dagoela aitortu dezaket. Azken batean, egunero baliabide berdinekin aritzea jarduera monotonoak egitera bultzatzen dituzte ikasleak. Aldiz aterpe barruko gunerako material nahikoa dela esan dezaket, azken finean futboleko aritzeko soilik baloi bat behar da, baina egia esan da ez legoke gaizki material alternatiboa eskaintzea, espazio honetan beste praktika batzuk eman ahal izateko.

Pandemia aurreko ikasturte honetako patioan ondorioztatu dezakegu, mutilak direla espazioa haien moduan eta haien gozamenerako erabiltzen dutenak. Aldiz neskak eta futboleko eta saskibaloian jolasten ez duten mutilak bazterretatik eta porlanezko eremutik ibiltzen dira. Harrigarria iruditu zait ikasleak aterpe barruan duten kontrola ze mailarataraino iristen den, haiek dute beti gune honetako azken hitza.

- Pandemia ikasturteko ondorioak

Oraindik ere eskola patio honek dituen gabezia hauek gehiago markatu egin dira pandemia urte honetan. Pandemia honek, eskola barruko talde burbuilak sortzea, materiala ez partekatzera, segurtasun neurriak mantentzea, eskuen garbiketa momentu oro ematea eta abarreko neurri gehiago hartzera eraman izan gaitu. Egoera honek era berean eskola patioei kalte eta eragin egin die.

Eskola patio gehienak ez daude Pandemia egoera hau jasotzeko prestatuak. Eskola patio gehienak ikasleak soilik ordu erdi batez haien buruak askatzeko erabilgarria den espazioa bezala hartzen dute, eta honetan ez dituzte berrikuntzarik sartzen. Marina Moralesen (2021) esaten duen moduan eskola patio gehienak duela 40 urtez ez direla berritzen eta horren ondorioz ez daude gure ikasleen beharretara egokiturik.

Emaitzetan ageri den moduan, pandemia urte honetan eremuak berdinak izaten jarraitu dute, baina bertan eman den transformazioa galanta izan da. Materiala partekatu ezin denez eta gela desberdientetako ikasleak haien artean elkartu ezin direnez, saskibaloia eta futbola eskola patio honetatik desagertzea eragin izan du. Ausartu egin naiteke esatera, egoera kaxkar honek behintzat zeozer positiboa atera izan ahal dugula, eskola patio honetatik kirol arrunt eta nagusi hauek baztertzea.

Honen bidez, ez da ikasle talde edo genero protagonista eta manipulatzaileak existitzen. Emaitzak argi eta garbi utzi digute, pandemia egoera honek bai neska eta bai mutilak haien artean jolasteko aukera edo beharra sortu dietela. Beharra esaten dut, azken finean ordu erdi bat luze egin ahal zaie ezertara jolastu edo betiko ikaskideekin egotea soilik egiten baldin badute. Beraz, beharrezkoa dute ikaskide guztiekin bai neska eta ba mutilekin erlazionatzea eta jokoan ibiltzea.

Esan bezala ikaskideak haien artean jolasteko orduan, eskola patioetara jolas tradizional bueltatu direla ondorioztatu dezaket. Baloiak, sokak, margoak, liburuak... zapitxoaren jolasarengatik, harrapaketa jolasengatik eta abarreko plaza jolasengatik ordezkatu izan dira eta hauek ikasleengan eragin positiboa eragin dutela aitortu dezaket. Praktiketara egondako tutoreak aitortu didan moduan, talde kohesionatuagoa eta gertuagoa eraikitzeke aukera ematen dituzte horrelako jolasak.

Aldaketa nabariak eta esanguratsuak ekarri dizkigu pandemia ikasturte honek eta Fernando Bolillos (2021), *Los patios reviven gracias a la pandemia* artikuluan aitortzen duen moduan, pandemia egoera honek bizkortu edo azkartu egin ditu eskola patioak eraldatzeko prozesua. Aldi berean ondorioztatu dezaket, Araia Herri Eskola honetako patioak ez dela gaur egungo ikasleen beharretara adosten. Egitura aldetik eta baliabide aldetik nahiko zaharkituta geratu dela esan dezaket. Horretarako garrantzitsua ikusten dut hainbat hobekuntza proposamen egitea, azken finean aldaketa horiek gure ikasleengan onura eta garapen positiboa emateko aukerak eskaini dezakete.

Ondorio guzti hauek laburbilduz eta hauetatik idea nagusia ateraz, esan dezaket Araiako eskola patioak ez dituela gure ikasleen estimuluak asetzeko baliabide nahikorik. Hik Hasi (2018) aldizkariak eskola patio batek izan beharreko ezaugarrietatik ez ditu horietatik bat ere ez eskola patio honek. Hala nola, mugimendua sustatuko duten espazioak, espazio naturalak, jolas sinbolikorako eremuak, kirol eta jolas desberdinetako eremuak eta mahai joko eta jolas lasaietako baliabideak.

Honek ez die mesede egiten ikasleei, azken batean gune horiek gure ikasleen sormena, berdintasuna eta inklusibitatea lantzeko aukera eman ahal diete, baina aldi berean hauek izatea ikasleengan onura ikaragarriak izatea ahalbidetzen dute. Ikastetxetako kanpo espazioak ikasleen gaur egungo beharretara egokitzeko apostua egin behar da (Amenabar et al., 2021). Hori behar du azken finean Araiako Herri Eskolako patioak, Eremu inklusiboa bat sortzen saiatzea eta horren bitartez ikasle guztiek aukera berdina izango dituzte espazio honen barruan. Horretarako gure eskola patioak gure ikasleen beharretara egokitzeko apostua egin behar dugu.

6. Hobekuntza proposamenak

Marina Moralesen (2021) arabera, “La mayoría de los patios escolares son espacios en los que no se ha intervenido en las últimas décadas y esto se traduce en un espacio sin naturaleza y con escasas oportunidades para el juego libre”, eta horrelakoa da Araia Herri Eskolako patioaren errealitatea.

Ondorioetan ikusi ahal den moduan, eskola patio honek gure ikasleei ez die inolako estimulurik transmititzen. Ez da gure ikasleen beharretara egokitzen eta gaur egungo haize bolada berrietaz elikatzea beharrezkoa ikusten dut, hau da, aldaketarako garaia iritsi dela uste dut. Horretarako etorkizuneko irakasle moduan hainbat hobekuntza proposamen eskaintzea da ni hurrengo orrietako helburua. Proposamen hauek Araiako eskolako patioan ezartzeko pentsatuak daude, horretarako “*Tierra en las manos*” web orrialdetik hainbat ideia atera izan ditut eta bertako hainbat irudi txertatuko ditut hauek argiago ulertzeko helburuarekin.

Hasteko, eskola-patioan dauden arazoak konpontzeko patio-proiektu bat sortu behar da. Honekin bizikidetzaren hobetzeko, inklusioa, patioen antolaketa hobetzeko eta aisialdirako, ikaskuntza eta entretenimendurako baliabide gehiago eskaintzea lortu nahi da. Hau aurrera eramateko, jarraian proposamen batzuk plazaratuko dira jolastokiaren espazioa, materiala eta umeen arteko harremanak hobetzeko helburuarekin. Hain zuzen ere, ikerketa lan honen emaitzetan ikusi den bezala, gaur egungo eskola-patioetan aldaketak garatzea beharrezkoa da.

Aldi berean, muturreko egoerak bizitzen ditugunean, esparru desberdinetan ditugun benetako gabeziez ohartzen gara. Hori dela eta, garrantzitsua da patioak egokiak edo prestatuak izatea, beste edozein egoera batzuetarako.

Hasteko, harea eta lurra gure patioetan material ohikoa izatea. Material berri hauen bidez, haurrek irudimena sustatzen eta garatzen dute. Ez dute beste elementurik behar; izan ere, horrekin hainbat jarduera egin ditzakete. Jolas guzti hauek, haien motibazioa, parte-hartzea eta irudimena dakarte.

Idea horrekin jarraituz, interesgarria litzateke ura patioetan sartzeara. Honekin, haurrek, hondarra modu errazagoan manipulatu ahal izango lukete. Patioetan iturriak edukitzeak onura asko ekar ditzake. Sartzekotan, ikasleek gaitasun fisiko eta kognitibo desberdinak landuko lituzkete. Gaitasun fisikoei erreferentzia eginez; haurrek indarra egin beharko lukete gotorlekua pizteko eta garraiatzeko modu desberdinak bilatu beharko lituzkete. Gaitasun kognitiboari dagokionez, uraren erabilera arduratsuari buruzko kontzientziarazioa sartzeko modu egokia litzateke. Aldi berean, estrategiak eta arazo-konponbideen teknika desberdinak landuko lituzkete egun batzuetan zehar.

Horri indar gehiago emateko eta haurren irudimena sustatzen jarraitzeko, jolasgunean sukaldetxo bat egotea oso onuragarria izan daiteke. Jolas horren bidez, haurrek hainbat material sortu, manipulatu, beren istorioak osatu eta berdinen arteko harremanak sustatzeko aukera izango dituzte. Horrelako jolasetan denek dute lekua eta ume guztien ideiak ondo hartzen dira. Proposamen honekin batera, patioetan etxeak egotea onuragarria izango litzateke. Bertan, zenbait ikasle jolasteko aukera izaten dute eta espazioa, zein irudimen edo ideia eta gai berdinak partekatze aukera izango dute.

Ikasleen motrizitate lodia lantzen jarraitzeko, interesgarria litzateke desnibelak, harriez edo lurrez egindakoak, eta ohikoagoak diren beste elementu batzuk sartzea, hala nola txirristak. Horrela, hurrek, jolasen eta mugimendu errepikatuen eta naturalen bidez, indarra eta trebetasuna garatuko dituzte. Motrizitatea, oreka eta koordinazioa garatzeko eta lantzeko, enborrezko zirkulotxoak lurrean egotea interesgarria izango litzateke. Hauetan hainbat ekintza egin ahal dira eta umeen irudimenarekin batera, hainbat jolas eta ariketak aurrera eramateko aukera emango litzateke.

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiagokoa, patioetan landaretza eta baratzea sartzea ekarpen handia izango litzateke. Hemen, ikasleek hainbat espezie, landare eta abarren garapena ikusi eta ulertu ahal izango dute. Horrela, naturaren zaintza eta errespetua atsekabetu eta garatuko dituzte. Munduarekin benetako harremana izango dute.

Proposamen guzti hauek eskolako ikasleen garapen osoa eta beharrezkoa lortzera bideratuta daude, ikasleen beharrak, motibazioak eta egoerak kontuan hartuta. Aipatutako proposamen hauek gure ikasleen beharretara egokitzea beharrezkoa izango da, hauek hartu eta gure eskola patioan txertatzearekin ez dugu eskola patioak dituzten gabeziak ebatziko.

Aurretik planteatzen diren erreformekin, egokia litzateke ikastetxeko beste ikasle batzuei zuzendutako beste erreforma mota batzuk sartzea. Kontuan hartuta haur bakoitzaren nortasunaren parte diren hainbat pertsonalitate eta behar desberdinak daudela. Aipatutako eta azaldutako jolasgune hauetaz gain, ikastetxeetako patioak osatzeko eremu lasaia edo txoko lasaia sar genezake.

Horrelako eremuak behar dira, ikasle guztiek ez baitituzte behar berberak eta guztien motibazioa eta ongizatea bilatzea beharrezkoa da. Haur askok lasaitasuna, hitz egiten egotea edo jolas lasaiagoetan jolastea behar dute. Garrantzitsua da guztiek beren lekua izatea, gustuko jarduerak egin ahal izateko eta deskonektatzeko. Ikasle batzuentzat, klaseak nekagarriak dira, eta atsedean hartzeko moduko espazio horrek indarrak berreskuratzen laguntzen die.

Espazio horiek antzeko gustuak eta zaletasun berberak dituzten hurrekin konektatzeko eta harremanetan jartzeko balio diete. Hemen modu lasaian hitz egin dezakete, jarduera desberdinak egin ditzakete eta beraiek izan daitezkeen leku bat dela sentitzen dute.

GRADU AMAIERAKO LANA

Horrela, beren beharrak ere kontuan hartzen direla erakusten zaie eta ez direla soilik gehiengoak nahi dituen espazioak sortzen ikustarazten da.

Garrantzitsua da ikastetxeko ikasle guztien egoera, motibazioa eta gustuak kontuan hartzea. Jolastokia haurren sozializazioaren eta garapenaren gune garrantzitsua da; horregatik, duen balioa eman behar zaio. Urte askotan ez zaio beharrezko arreta eskaini, baina birmoldatzeko eta bideratzeko garaia iritsi da.

Jarraian, proposatutako ideia guztien argazkiak txertatzen dira:

Harea eta Lurra



Ura



Sukaldea



Etxeak



Desnibelak



Txirristak



Enborrezko zirkulotxoak



Landaretza eta Baratzea



Txoko lasaia



Erreferentziak

Amenabar, A., Biteri, M., Ugarte, E. eta Buruaga, M. (2021). Eskola ingurune inklusiboa lortzeko bidea. *Alea*, 270, 4-9

Carballo, A. (2016). Cómo puede el niño sobrevivir en el colegio si no juega al fútbol. Hemendik berreskuratuta: <https://www.guiainfantil.com/blog/educacion/escuela-colegio/como-sobrevivir-en-el-colegio-si-al-nino-no-le-gusta-el-futbol/>

Baeza, P., Godoy, G., eta Aranda, I. (2020). El patio escolar como un espacio multimodal resignificado: un estudio de caso en tres colegios públicos de Chile. *Revista Chilena*, 47.

Boillos, F. (2021). El patio escolar: La asignatura Olvidada. *Magisterio*. Hemendik berreskuratuta: <https://www.magisnet.com/2021/01/el-patio-escolar-la-asignatura-olvidada/>

Boillos, F. (2021). Los patios reviven gracias a la pandemia. *Magisterio*. Hemendik berreskuratuta: <https://www.magisnet.com/2021/05/los-patios-reviven-gracias-a-la-pandemia/>

Benito, A., Nuin B. eta Sorarrain, Y. (2019). *Guía para el desarrollo de proyectos participativos de transformación en patios escolares*. Eusko Jaurlaritz. Hemendik berreskuratuta: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/patios_escolares/es_def/adjuntos/GUIA_patios_escolares%20final.pdf

Eskolako patioa: Ikasle guztiei leku egin nahian. (2018-ko urtarrilak 23). Hik Hasi. Hemendik berreskuratuta: http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20180123/ESKOLAKO_PATIOA._Ikasle_guztiei_leku_egin_nahian

González, A., Guix, V., eta Carreras, A. (2016). La transformación de los patios escolares: una propuesta desde la coeducación. *Propuesta Didáctica*. 67-72.

Marín, I. (2013). Los patios escolares: espacios de oportunidades educativas. *Rayuela Revista Iberoamericana sobre Niñez y Juventud en Lucha por sus Derechos*, (31).

Molines, S. (2021). El fútbol en los patios de los colegios lo domina todo. Hemendik berreskuratuta:

https://www.ondacero.es/programas/por-fin-no-es-lunes/podcast/entrevistas/sandra-molines-futbol-patios-colegios-domina-todo_2021022160320f78ec8b8d000108aa8f.html

Pons, C. (2016). *Cómo empezar un proceso de reforma del patio de la escuela*. Tierra en las manos. Hemendik berreskuratuta:

<http://www.tierraenlasmanos.com/reformar-patio-escuela/>

Pons, C. (2019). *Por qué incorporar naturaleza en el patio de la escuela favorece la salud, aprendizaje y juego de los niños*. Tierra en las manos. Hemendik berreskuratuta:

<http://www.tierraenlasmanos.com/beneficios-naturaleza-patio-escuela/>

Pons, C. (2021). *5 razones para reflejar el entorno natural próximo en el patio de la escuela*. Tierra en las manos. Hemendik berreskuratuta:

<http://www.tierraenlasmanos.com/razones-patio-escuela-reflejar-entorno-natural-proximo/>

Tierra en las manos (2016). *¿Cómo debería de ser el patio de la escuela?*. Hemendik berreskuratuta:

<http://www.tierraenlasmanos.com/reformar-patio-escuelaen-espacio-educativo>

Torrallbo, A. (2017). *Contra el imperio del fútbol: los patios de escuela a revisión*. El Diario de la educación. Hemendik berreskuratuta: <https://eldiariodelaeducacion.com/2017/01/18/contra-el-imperio-del-futbol-los-patios-de-escuela-a-revision/>

Varela, A. G. (2015). Los juegos populares como herramienta para la convivencia en los recreos. *Revista de estudios e investigación en psicología y educación*, 034-038.

Eranskinak

Eranskina I; Behaketa fitxak

SASKIBALOIKO ZELAIAREN ETA HONEN BAZTERREN EREMUA		
AZTERGAIAK	GALDERA IKERTZAILEAK	JASOTAKO DATUAK
ESPAZIOAREKIKO ERLAZIOA	Nola banatzen da espazioa?	
	Zertarako erabiltzen da espazioa?	
	Espazio guztia erabiltzen da?	
	Neskak eta mutilak espazioa partekatzen dute?	
MATERIALEKIKO ERLAZIOA	Zer materialekin ibiltzen dira?	
	Guztionezko material nahikoa?	
	Nola banatzen da materiala?	
IKASLEEN ARTEKO ELKARREKINTZA	Mutilak eta neskak batera jolasten dute?	
	Ze rol dituzte mutilak eta neskak?	
	Nor hartzen du kontrola?	

PORLANEZKO EREMUA

AZTERGAIAK	GALDERA IKERTZAILEAK	JASOTAKO DATUAK
ESPAZIOAREKIKO ERLAZIOA	Nola banatzen da espazioa?	
	Zertarako erabiltzen da espazioa?	
	Espazio guztia erabiltzen da?	
	Neskak eta mutilak espazioa partekatzen dute?	
MATERIALEKIKO ERLAZIOA	Zer materialekin ibiltzen dira?	
	Guztiontzako material nahikoa?	
	Nola banatzen da materiala?	
IKASLEEN ARTEKO ELKARREKINTZA	Mutilak eta neskak batera jolasten dute?	
	Ze rol dituzte mutilak eta neskak?	
	Nor hartzen du kontrola?	

ATERPE BARRUKO ESPAZIOA

AZTERGAIAK	GALDERA IKERTZAILEAK	JASOTAKO DATUAK
ESPAZIOAREKIKO ERLAZIOA	Nola banatzen da espazioa?	
	Zertarako erabiltzen da espazioa?	
	Espazio guztia erabiltzen da?	
	Neskak eta mutilak espazioa partekatzen dute?	
MATERIALEKIKO ERLAZIOA	Zer materialekin ibiltzen dira?	
	Guztiontzako material nahikoa?	
	Nola banatzen da materiala?	
IKASLEEN ARTEKO ELKARREKINTZA	Mutilak eta neskak batera jolasten dute?	
	Ze rol dituzte mutilak eta neskak?	
	Nor hartzen du kontrola?	

GRADU AMAIERAKO LANA

Eranskina II; Eskola patioko eremuak

- Saskibaloiko eremua eta bazterrak





- Porlanezko eremua



- Aterpearen gunea

